



ZERBITZUAK KONTRATATZEKO MEMORIA, OGP EUSKADI 2018-2020KO EKINTZA PLANAREN 3. KONPROMISOAN GARATUTAKO PILOTU-PRODUKTUEN ETA JARDUNBIDE EGOKIEN TRANSFERENTZIA EGITEKO

ZABALKUNDE PUBLIKORAKO ESKAINTZAREN EDUKIA

I. AURREKARIAK: OGP Euskadi ekimenaren interes publikoa

Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzaren kide dira (OGP) Eusko Jaurlaritza, 3 Foru-aldundiak, 3 hiriburu-udalak eta Innobasque, eta konpromisoa hartu dute 2018-2020ko OGP Euskadi Ekintza-plana betearazteko, zeina 2020ko abuztuan amaituko den. Ordurako, herritarrekin batera sortuta egon beharko da bigarren 2020-2022ko ekintza-plana.

Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailak, bereziki, 3. konpromisoa betearazteko lidergoa hartu du bere gain: Euskadiko Herritarren parte-hartzeari buruzko berrikuntzaren ilab-a, Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzaren bidez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Innobasqueren lankidetzan.

3. konpromisoan, lehenengo faseari ekin zaio, zeina Euskadiko herritarren parte-hartzeari buruzko berrikuntzaren ilab-aren kontzeptualizazioan eta gobernantza-eredua egitean datzan, 2018an egindako bi kontratazioaren bidez: bata, jardunbide egokiak mapatzeko, eta bestea konpromiso-taldea dinamizatzeko eta gobernantza-eredua garatzeko.

Orain ari da exekutitzen proiektuaren bigarren eta azken fasea, zeina esperimentatzean datzan ilab-en lehen produktu transferigarriak emango dituen 4 proiektu pilotuen bitartez: Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailarekin batera elkarlanean egindako prozesu parte-hartzaileen ahalmen salutogenikoa; partaidetzako aurrekontuak Gipuzkoako Foru Aldundia buru dela eta hainbat udalen lankidetzarekin; Thinking Fadura, Getxoko Udala buru dela eta Integra Rekalde, Bilboko Udala buru dela.

3. konpromisoa 2018ko irailean hasi zen eta 2020ko abuztuan amaitu beharko da; eta betearazteko bi urte haietan zehar garatzen joango diren hainbat ekintza eta mugarri dakartzan berekin, Gobernu Irekiaren aldeko Nazioarteko Aliantzak ezarritako estandarrak jarraituz: gardentasuna, herritarrek parte hartzeko lankidetzeta-prozesuak, kontuak ematea...

OGPk onartutako dokumentuan daude jasota mugarriak eta ondoren azalduko dira.

Pilotu-proiektuetan garatutako jardunbide egokiak orokortzeko orientazioen lanketa jasotzen da 9. mugarrian; jardunbide egokiak instituzionalizatzea 10.ean eta, hedapena eta ikusgaitasuna 11.ean.

II. 3. KONPROMISOAREN TESTUINGURUA: Euskadiko herritarren parte-hartzeari buruzko berrikuntzaren ilab-a

Zer arazo konpondu nahi ditu eta zer dakar 3. konpromisoak

Laborategi bat sortu nahi du konpromiso honek, ikerketak egiteko, entseguak egiteko, ikasteko eta elkarrekin konponbide zehatzak eta erabilgarriak bilatzeko, gai publikoetan herritarren parte-hartzearen pizgarria izan daitezen.

Sare-komunitate gisa kontzeptualizatu da laborategi hau, Euskadiko herritarren parte-hartzeari buruzko berrikuntzaren ilaba izenekoak, eta hainbat agentek osatzen dute, zeinek ikerketan eta esperimendazioan printzipio eta konpromiso zorrotzak, ikaskuntza eta lankidetzaren erantzukidekoak eta transferentzia sistematizatukoak partekatzen dituzten.

Herritarren PARTE-HARTZEARI BURUZKO BERRIKUNTZARI laguntzea eta ahalbidetzea da ilabaren helburua, elkarrekin lotutako hiru esparrutatik: **prospekzioa**, (antena eta radarra izatera bideratuta, garatze-bidean dagoena begiratzera eta joerak identifikatzera, problematika zehaztetan sakontzera eta bide berriak ikertzera, etorkizuneko agertokiak aurreratzera eta testatzera..., modu ireki, inklusibo eta parte-hartzailean, adimen kolektiboaren garrantzia azpimarratuz), **esperimendazioa** (pilotu eta prototipo zehatzak garatzera bideratuta, bilatuz bai partaidetza hobetzeko tresnen, metodologiaren edo prozeduren diseinua eta garapena, bai hainbat eremuren eta ezaugarrien erroka zehatzei aplikatutako irtenbideak, betiere ikaskuntzarako bokazioaz eta dibertsitate-ikuspegiak kontrolatutako arrisku-baldintzetan eginez), eta **ezagutzen eta esperientzien transferentzia** (orientazio bikoitzarekin: batetik, baldintzak ahalbidetzen laguntzea parte-hartzeari buruzko berrikuntza-prozesuak gara daitezen entzuteko, aholkuak emateko eta errazteko logika batetik; eta, bestetik, prozesuen, prospekzioaren eta esperimendazioaren emaitzen ebaluazioa eta sistematizazioa ere, beste testuinguru batzuetan eskalagarritasuna edo errepligarritasuna bilatuz, eta lagunduz agenteak konektatzen eta ekintzak egituratzen, zorrotasuna eta behar den prozedura-sistematika mantenduz eta arriskua ebaluatuz).

Haren funtzionamendua esperimendatzeko, 4 pilotu-proiektu bultzatu dira, jardunbide egoki eskalagarriekin eta transferigarriekin amaituko direnak. Horretarako, pilotu-proiektu bakoitzaren talde teknikoaren arduradunekin definitu da zeintzuk diren pilotu bakoitzean

transferitzeko edukiak; eta ez produktuen formatua/diseinua, ezta transferentzia bermatzeko behar diren prozesuak ere. Ilaben funtzio nagusia ezagutzaren eta esperientzien transferentzia izango denez, beharrezkoa da oinarrizko orientazioak edukitzea, transferentzia-prozesu egokiak definitzen lagunduko dutenak; baita jarduera batzuk ere, jardunbide egokien zabalkunde- eta bistaratze-pilotuen amaieran.

Halaber, 10. mugarri gisa 3. konpromisoan jasotako instituzionalizazio eta orokortze-konpromisoaren barruan, Eusko Jaurlaritzak beharra sartu du, Elkarlan sarien 2019ko edizioan, saritutako proiektu bakoitzari transferentzia-elementu bat zehazteko, baita sariaren zenbatekoaren 3000 euro aplikatzeko betebeharra ere jardunbide egokien transferentzia-prozesuari, pertsonen eta kolektiboen ahalduntzea aktibatuz herritarren parte-hartzearen bitartez, beste eragile edo lurralde-espazio batzuetarako. Bestalde, diru-sariaz gain, hau ere dago: [AGINDUA, 2019ko urriaren 15ekoa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, Eusko Jaurlaritzak balio publikoa batera sortzeko proiektuetarako antolatzen dituen «Elkarlan» sarien bostgarren deialdia onesten duena \(2019. urtea\)](#); haren bigarren oinarri arautzailearen c) letran, hauxe zehazten du: kanpoko aholkularitza ere izango da saria, beste eragile batzuei egindako transferentzia-prozesuan beste eremu edo lurralde-espazio batzuetan aplikatzeko.

III. KONTRATUAREN BEHARRA INTERES PUBLIKOAREN BEHAR BAT ESTALTZEKO

Transferentziak produktu irisgarrien eta erakargarrien diseinua dakar (dokumentuak, liburuxkak, material bideografikoak), baina interakzio parte-hartzailea eta, ikaskuntzaren eta erabileraren fluxua eta trazabilitatea bermatzen duten prozesuak eta mekanismoak ere behar ditu. Hain zuzen, kontrastea, hedapena eta beste esparru edo espazio batzuetan aplikazioa erraztea da ilaben funtzioa, prozesu bakoitzean lortutako produktuen proiektu esperimentalak gidatu duten eragileen lankidetzan.

Ilido horretatik, lau fase edo mugarritan zehazten da kontratu honen helburua:

1. FASEA.- Dagoeneko eginda dagoen eduki transferigarrien proposamenetik abiatuta, lehen aipatutako 6 prozesuetarako transferentzia-produktu egokienak diseinatzea (OGPren 3. konpromisoari 4 dagozkio eta 2 Elkarlan 2019ko sariei).
2. FASEA.- Transferentzia-prozesu / mekanismo eraginkorrak definitzea definitutako 6 transferentzia-produktuetarako, banaka edo multzorako.
3. FASEA.- Aurreko puntuan definitutako prozesuetan deskribatutako 2 transferentzia-ekintza /jarduera inplementatzea gutxienez, OGP Euskadi 2018-2020ko Plana amaitu aurretik (2020ko abuztua)

4. FASEA.- Orientabide orokorrak dokumentu batean laburtzea herritarren partaidetzako berrikuntzan jardunbide egokiak transferitzeko prozesuetarako, ilaben kontzeptualizazio- eta gobernantza-dokumentuetan jasotzen diren printzipioekin bat etorritz, 3. konpromisoaren 1. fasean herritarrekin batera sortuta.

Herritarrak Hartzeko eta Administrazioa Berritzeko eta Hobetzeko Zuzendaritzak ez du baliabide pertsonalik edo materialik transferitzeko prozesuen kontzeptualizazio-lan hau egiteko, ezta horren instrumentalizazioa ere abian diren 6 prozesuetarako; izan ere, proiektu-arduradun lanpostu bakarra baino ez du 2018-2020ko Ekintza Plana sustatzeko, haren 5 konpromisorekin; horrez gain, gainerako proiektuez ere arduratzen da, hain zuen, gardentasunari, herritarren parte-hartzeari eta gobernu onari buruzko gaietan esleituta, eta gardentasunaren bi teknikari lanpostuen ardura ere du, zeinek Open Data Euskadi sustatzeari eta GARDENA-Eusko Jaurlaritzaren gardentasunaren ataria mantentzeari ekiten dioten, eta lan-karga handia dute. Gainera, kontratatu behar denak ebaluazio parte hartzailearen metodologiak eta teknikak menderatzea eskatzen du...eta ez daude lotuta aipatutako lanpostuei.

Gaur egun, ez dago indarrean dagoen kontraturik zeina kontratazio honen xedeko lanekin lotu daitekeen.

IV. KONTRATUAREN XEDEA

Hau izango da, beraz, kontratuaren xedea:

- 1. FASEA.- Dagoeneko eginda dagoen eduki transferigarrien proposamenetik abiatuta, lehen aipatutako 6 prozesuetarako transferentzia-produktu egokienak diseinatzea (OGPren 3. konpromisoari 4 dagozkio eta 2 Elkarlan 2019ko sariei). Hauek hartzen ditu barnean:
 - Transferentzia-produktu bakoitzaren helburua eta irismena zehaztea
 - Transferentzia-produktu bakoitzaren eta haren xede-publikoaren balio-proposamen zehaztea
 - Produktua bat datorren diseinura egokitzea, balio-proposamenarekin, irismenarekin eta helburuekin bat etorritz (adibidez, bideoa, eskuliburua, liburuxka, etab.).
 - 4 pilotuen euskarazko eta gaztelaniazko transferentzia-produktuen ekoizpena (kopiarik ez), sarien titularren kontura joango da Elkarlaneko bi sarien ekoizpena.
- 2. FASEA.- Transferentzia-prozesu / mekanismo eraginkorrak definitzea definitutako 6 transferentzia-produktuetarako, banaka edo multzorako. Haren erabileraren balidazio

eta testaren diseinua ere gehituko dute prozesu / mekanismo horiek. Gutxienez, 4 prozesu / mekanismo definitu beharko dira, etorkizuneko ilabak inplementa ditzakeenak. Balioetsiko da transferentzia-prozesu horiek printzipio hauei erantzutea:

- Irekitzea: informazioa, gardentasuna eta zabalkundea
- Trebakuntza eta prestakuntza
- Herritarren parte-hartzea
- Jasangarritasuna - eragileekin lankidetzeta eta / edo abiatutako egiturak / plataformak, dituzten baliabideen arabera modulagarriak (Tamaina txikienetik handienera, haien eskalagarritasuna bermatuz)
- 3. FASEA.- Aurreko puntuan definitutako prozesuetan deskribatutako 2 transferentzia-ekintza /jarduera inplementatzea gutxienez, OGP Euskadi 2018-2020ko Plana amaitu aurretik, garatutako lau pilotuen jardunbide egokiak zabaltzeko beharrei, gutxienez, erantzun ahal izateko.
- 4. FASEA.- Orientabide orokorrak dokumentu batean laburtzea herritarren partaidetzako berrikuntzan jardunbide egokiak transferitzeko prozesuetarako, ilaben kontzeptualizazio- eta gobernantza-dokumentuetan jasotzen diren printzipioekin bat etorri, 3. konpromisoaren 1. fasean herritarrekin batera sortuta.

Lehenago identifikatutako atazak betetzeko, lan-prozesu bat ezarriko da, hauek hartuko dituenak:

- Elkarriketak egitea proiektu esperimentalen eta Elkarlaneko bi sarituen talde teknikoarekin (pilotu-proiektuak), prozesu esperimentala edo saritutako jardunbide egokia eta adostutako transferentzia-elementua sakonago ezagutzeko.
- Transferentzia-elementu bakoitzerako balio-proposamena zehaztea 3. konpromisoaren koordinazio-taldearen lankidetzarekin eta, hala badagokio, Elkarlaneko bi sarituekin.
- Transferentzia-elementuen diseinua kontrastatzeko saioa, zeinak hauen parte hartzea gaineratuko duen, gutxienez:
 - 3. konpromisoaren koordinazio-taldea
 - Proiektu esperimentalen talde teknikoak (pilotuak)
 - Elkarlaneko sarituen solaskideak
- Transferentzia-elementuen ekoizpena eta aurkezpen publikoa (lau pilotu-proiektuen kasuan)
- Transferentzia-elementuaren segimendua egitea proiektu bakoitzerako adostua eta hau bermatzea azken transferentzia-produktuari:

- Adostutako diseinuari egokitzea, bai edukiei bai formari dagokienez, ilaben proiektu-taldearen eta koordinazio-taldearen aldetik.
- Hizkera erraza eta ulergarrian ekoiztea, ulermena eta erabilera errazteko
- Eskuragarria izatea (sarbideak eta sartzeko formatuak) eta bi hizkuntza ofizialetan egotea eskuragarri
- Transferentzia-prozesuen /mekanismoen diseinua eta haien aurkezpena
- Bi transferentzia-ekintza inplementatzea, 4 pilotu-proiektuen transferentzia-beharrei erantzuteko, gutxienez
- orientabide orokorren dokumentua egitea eta kontrastatzea herritarren partaidetzako berrikuntzako jardunbide egokiak transferitzeko prozesuetarako, konpromisoaren koordinazio-taldearekin, eta egokitze zehaztutako foroan aurkeztea.

V. Kontratu mota:

Kontratu txikia

VI. Esleitzeko gehieneko zenbatekoa:

14.999 +BEZa= 18.149 euro

VII. Prozedura:

Balioetsi beharreko 3 eskaintza

VIII. Balioetsi beharreko irizpideak:

- Lan-proposamenaren kalitatea: Nola beteko diren KONTRATUAREN XEDEA atalean definitutako lau aginduak, metodologiak, baliabideak,...: (% 60)
 - Proposamenaren definizioa eta argitasuna (planteatutako proposamena nahikoa zehatza da eta aukera ematen du ezagutzeko nola burutuko diren Kontratuaren xedean definitutako lau aginduak) (% 10)
 - Proposamenaren kalitatea (proposamena bideragarria, osoa eta zorrotza dela ulertzen da) (% 30)
 - Eskura jarritako baliabideak (planteatutako estrategiari ekiteko nahikoa baliabide ditu proposamenak) (% 10)
 - Proposamenaren originaltasuna eta berrikuntza (lanak betearazteko ohikoak ez diren metodologiak edo tresnak gehitzen ditu proposamenak) (% 10)

- Prezioa (% 40)

Formula= (Eskaintzarik onena/ balioesten den eskaintza) x 40

IX. **Betearazteko epea:**

2020ko otsailean-irailean

X. **Ordainketak:**

1. Martxoan, % 50eko lehen ordainketa, kontratuaren xedean ikusitako lau aginduetan aplikatu beharreko planteamendu orokorrak entregatu eta gero, iragankor bihurtutakoak eta garatutako lehenengo zenbait entregagai.
2. Irailean, % 50eko bigarren ordainketa, egindako lanen amaierako txostena eman eta gero:
 1. Parte hartzaileak, egindako jarduerak eta helburua edukiko dituen jardueren memoria, zeinak transferentzia-jarduerak edukiko dituen
 2. Garatutako transferentzia-produktuak
 3. Orientabide orokorren dokumentu bat, herritarren partaidetzako berrikuntzan jardunbide egokiak transferitzeko prozesuetarako.

XI. **ESKAINTZAK AURKEZTEKO EPEA**

Eskaintzak aurkezteko epea otsailaren 3tik 17ra izango da, hura barne.

Eskaintzak hona bidaliko dira:

k-uriarte@euskadi.eus

Haiek dira proposatutako kontratu txikiaren ezaugarriak, zeinak kontratuaren arau orokorrak errespetatzen dituen.

Sin. Javier Bikandi Irazabal

HERRITARRAK HARTZEKO ETA ADMINISTRAZIOA BERRITZEKO ETA HOBETZEKO ZUZENDARIA.